Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3670

AGINDUA, 2010eko uztailaren 21ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gizarte-ekonomiaren arloan ekiteko laguntzak ezartzen dituena.

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresak eraiki daitezen sustatzeko laguntza-programa hau diseinatu zenetik hamar urte igaro ostean, esan daiteke emaitza objektiboak positiboak direla, programa hau abian jartzerakoan ezarri ziren helburuei dagokienez laguntza publikoaren eraginkortasuna soberan bermatzen baitute. Programa urtero berritu da hainbat alderdi perfekzionatzeko, zehazki, hobetzeko modukotzat hartu direnak, eta deialdi bakoitzean lortutako emaitza objektiboekin lotutakoak.

Laguntza-programa hau gizarte-ekonomiako enpresa berriak sortzea eta, hortaz, aberastasuna eta enplegua sortzea helburu duten funtsezko bi zutabeetan oinarritzen da, hau da, alde batetik, ekintzaileak berak, eta, bestetik, sortutako jarduera berriei aholkuak emateko eta haiek sustatzeko jarduera guztiak, bai enpresa horiek sortu aurreko prozesuan, bai sortzen diren enpresa-errealitate berriei buruz aholkuak emateko eta bermatzeko ondorengo prozesuan.

Enpresa-ekimen berriak sustatzeko eremuan hainbat jardun-esparru hartzen dira. Alde batetik, gizarte-ekonomiako izaera juridikoko enpresek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazioa emateko eta haiek hedatzeko jarduera espezifikoak daude. Batez ere enpresa juridikoak sortzera eta enpresa horiei eustera bideratutako erakunde guztiek ere jaso dezakete laguntza publikoa, eta laguntza hori ekonomia-estaldura garrantzitsu batean objektibatzen da; izan ere, haren zereginak aparteko balioa hartzen du sortutako erakunde berriak izan daitezen bermatu eta indartzerakoan.

Aurreko ekitaldietan egiaztatu zen gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko aukera sustatzeko, gizarte-ekonomiako enpresetan barne-ekintzailetza gauzatzeko eta enpresa horiek sustatzeko lurralde-nodoak sortzeko bi modu berri babesteko premia zegoela, eta premia horretan ahaleginak osatzen dira, eskualde-eremu jakin baten, zonan dauden enpresen, zona horretako ikastetxeen eta aurkeztutako proiektu berrien bideragarritasuna ahalbidetzen duten eragile sozioekonomikoen barruan. Laguntza publikoa ezarri den jardunetan izandako esperientziak kasu honetan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3670

ORDEN de 21 de julio de 2010, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se articulan las ayudas para emprender en Economía Social.

Transcurrida más de una década desde que se diseñara el presente programa de ayudas para la promoción de la constitución de empresas de economía social, se puede valorar positivamente sus resultados objetivos, que avalan sobradamente la eficacia de la ayuda pública en las metas que se establecieron a la hora de su puesta en marcha. El programa se ha ido revisando anualmente de cara a perfeccionar los aspectos que se han entendido como mejorables y en los resultados objetivos alcanzados en cada convocatoria.

El presente programa de ayudas se centra en los dos pilares básicos que conducen a la creación de nuevas empresas de economía social, y por ende en la creación de riqueza y empleo, esto es, por un lado las propias personas emprendedoras y por otro todas las actividades de asesoramiento y promoción de las nuevas actividades creadas, tanto en el proceso anterior a su constitución como en el posterior de asesoramiento y consolidación de las nuevas realidades empresariales surgidas.

En el ámbito de la promoción de nuevas iniciativas empresariales se abarcan diversos campos de actuación. Por un lado, se encuentran las actividades específicas de información y difusión de las posibilidades que ofrecen las empresas con naturaleza jurídica de economía social. A su vez, también son objeto de ayuda pública todas las entidades dedicadas principalmente a la creación y sostenimiento de éstas, objetivada en una importante cobertura económica pues su labor adquiere un valor inestimable a la hora de consolidar y fortalecer la propia existencia de las nuevas entidades creadas.

En anteriores ejercicios se constató la necesidad de apoyar dos nuevas formas de promover la creación de empresas de economía social, el intraemprendizaje en empresas de economía social y la creación de nodos territoriales de promoción de dichas empresas, donde se complementan los esfuerzos, dentro de un ámbito comarcal determinado, de las empresas existentes en la zona, de los centros educativos de la misma y de los actores socio-económicos que posibilitan la viabilidad de los nuevos proyectos presentados. La experiencia de los ejercicios en que se ha implementado

gomendatzen du Administrazio Publiko honek egindako ahalegin ekonomikoari eutsi behar zaiola.

Aurreko ekitaldian egindako aldaketei bere horretan eutsi zaie, eta denbora-aldagaiak eta laguntza-linea honetako kudeaketa-organoen egitura organiko eta funtzional berria eguneratu egin dira.

Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko. urteko Aurrekontu Orokorrak Onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legea onartu denez, eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak azaldutakoa entzunda, honako hau

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, 2010eko ekitaldirako eman ahal izango dituen diru-laguntzak arautzea da. Laguntza horiek honako helburu hauek izango dituzte:

a) Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean erlazionatuta dauden sustapen-ekintzak egitea, jarraipena eta enpresa-kudeaketarako doako aholkularitza barne, enpresaren jarraipena sustatu eta eusteko helburuarekin, enpresa eratu eta urtebeteko epean.

b) Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, dauden enpresak gizarte-ekonomiako enpresatan eraldatzeko kasuak barne. Xede horretarako, lan elkartuko kooperatibak, lurraren ustiapen komunitarioko kooperatibak eta lan-sozietateak bakarrik hartuko dira gizarte-ekonomiako enpresatzat.

c) Gizarte-ekonomiaren arloko berariazko ekimenak sustatzeko kultura zabaltzeko eta horri buruz informatzeko jarduerak.

d) Honako ezaugarri hauek dituzten sozietate anonimoen edo mugatuen ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterlana egitea: galera-maila handia, negozio-bolumenaren murrizketa, izakinen gehikuntza, ahalmen handiegia, autofinantzaketarako marjina gordinaren gutxitzea, gero eta zorpetze handiagoa, finantza-gastuen igoera eta aktibo garbiaren ahultasuna edo desagerpena.

e) Lehendik d) atalean aipatutako ekonomia-bideragarritasuneko azterketa egin deneko enpresetako langileek lan elkartuko sozietateak edo lan-sozietateak eratzeko prozesua.

la ayuda pública en estos casos aconseja el mantenimiento del esfuerzo económico dedicado por ésta Administración Pública.

Se han mantenido las variaciones introducidas en el ejercicio anterior, y se ha efectuado la actualización de las variables temporales y de la nueva estructura orgánica y funcional de los órganos de gestión en la presente línea de ayudas.

En su virtud, habiéndose aprobado la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, y oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi,

RESUELVO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

1.– El objeto de la presente Orden es regular las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, podrá otorgar, durante el ejercicio 2010, para:

a) La realización de las acciones de promoción directamente relacionadas con la constitución de una empresa de Economía Social, incluyendo el posterior seguimiento y asesoramiento gratuito en la gestión empresarial encaminado a apoyar y mantener la continuidad empresarial, en un periodo de un año desde la inscripción de la empresa.

b) La constitución de empresas de Economía Social, incluyendo los supuestos de transformación de empresas ya existentes en empresas de Economía Social. A estos efectos se entenderán como empresas de economía social, exclusivamente, las cooperativas de trabajo asociado, las cooperativas de explotación comunitaria de la tierra y las sociedades laborales.

c) Actividades específicas de información y difusión de la cultura emprendedora, exclusivamente en Economía Social.

d) La realización del estudio de viabilidad económica y financiera de sociedades anónimas o limitadas con un nivel creciente de pérdidas, disminución del volumen de negocios, incremento de las existencias, exceso de capacidad, disminución del margen bruto de autofinanciación, endeudamiento creciente, aumento de los gastos financieros, debilitamiento o desaparición de su activo neto.

e) El proceso de constitución de cooperativas de trabajo asociado o sociedades laborales por parte de las personas trabajadoras de las empresas en las que se ha realizado previamente el estudio de viabilidad económico mencionado en el apartado d).

2.– Agindu honen xedea izango da, halaber, laguntza teknikoa eta beharrezko azterlan ekonomiko-finantzarioa enpresa barruan enpresak sortzeko proiektu bat garatzeko, hau da, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkide langileek sustaturiko enpresa-ekimen berriak sortzeko, gizarte-ekonomiako erakunde bat eratu arte, urtebeteko jarraipenaldia ere barnean hartuz gizarte-ekonomiako erakundea eratzen denetik, merkatuan izango duen ezarpen tekniko eta ekonomikoari begira.

3.– Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako beharrezko jarduerak garatzea, lanean parte hartzean, aberastasuna sortu eta orekaz banatzean eta enplegu-sorkuntzan oinarrituta, eskualde-oinarriko lurralde-eremu jakin batean finkaturiko hezkuntza-erakundeek eta gizarte-ekonomiako enpresek parte hartzen duten erakundeen eskutik.

4.– Ezin izango dituzte agindu honen bidez araututako diru-laguntzak eskuratu ekonomia-jarduera nagusitzat edari alkoholikoen salmenta eta dastatzea daukaten enpresek, ikuskizundunek nahiz gabeek, Ekonomia Jardueren Zergako tarifen 67. multzoko 672. eta 673. taldeetan jasota daudenak, ezta tarifa horien 96. multzoko 969. taldeko 969.2, 969.3 eta 969.4 idazpuruetan jasotzen diren dibertimenduzko zerbitzuek ere.

II. KAPITULUA
GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK SUSTATU ETA ERATZEKO ETA KULTURA EKINTZAILEA ZABALTZEKO LAGUNTZAK

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Honako hauek jaso ditzakete kapitulu honetan bilduriko laguntzak:

1.– 1.1.a) artikuluko jarduerarako, helburu sozial gisa Kooperatiba edo Lan Sozietateak era daitezen sustatzea duten eta irabazizkoak ez diren pertsona juridikoak, edota bereziki irabazi-asmorik gabeko erakundeen jabetza direnak (hemendik aurrera, erakunde sustatzaileak).

2.– 1.1.b) artikuluan adierazitako laguntzarako, 2009ko irailaren 16tik 2010eko irailaren 15era bitarte (biak barne) Kooperatiben Erregistroan edo Merkataritza Erregistroan erregistraturiko Kooperatibak eta Lan Sozietateak, hurrenez hurren. Horrez gain, agindu honetan arautzen diren laguntzak jaso ahal izango dituzte 2010eko irailaren 15aren aurretik erregistro horietan inskribatzeko eskatu duten eta aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena eman aurretik egiaz inskribatu diren kooperatibek eta lan-sozietateek.

2.– El acompañamiento técnico y el estudio económico-financiero necesario para el desarrollo de un proyecto de intraemprendizaje, esto es, la creación de nuevas iniciativas empresariales promovidas por personas socias trabajadoras de empresas de economía social, hasta la constitución de una entidad de Economía Social, incluyendo el seguimiento durante un periodo de 1 año desde la constitución de la entidad de Economía Social, para su implantación técnica y económica en el mercado.

3.– El desarrollo de las actividades necesarias de promoción territorial planificada de empresas de Economía Social, basadas en la participación del trabajo, la creación y distribución equitativa de la riqueza así como la generación de empleo, por entidades que cuenten con la participación de entidades educativas y empresas de economía social entroncadas en un ámbito territorial determinado de base comarcal.

4.– No serán subvencionables las actividades dirigidas a empresas que desarrollen como actividad económica principal la venta y degustación de bebidas alcohólicas, con o sin espectáculos, incluidas en los Grupos 672 y 673 de la Agrupación 67 de las Tarifas del Impuesto de Actividades Económicas, así como igualmente los servicios recreativos recogidos en los Epígrafes 969.2, 969.3 y 969.4, incluidos en el Grupo 969 de la Agrupación 96 de las mencionadas Tarifas.

CAPÍTULO II
AYUDAS PARA LA PROMOCIÓN Y CONSTITUCIÓN DE EMPRESAS DE ECONOMÍA SOCIAL Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA EMPRENDEDORA

Artículo 2.– Entidades beneficiarias.

Podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente capítulo:

1.– Para la actividad del artículo 1.1.a), las personas jurídicas cuyo objeto social sea la promoción de la constitución de Cooperativas o Sociedades Laborales, y sean no lucrativas o su propiedad sea mayoritariamente de entidades no lucrativas (en adelante entidades promotoras).

2.– Para la ayuda enunciada en el artículo 1.1.b), las Cooperativas y Sociedades Laborales (en adelante entidades promovidas), inscritas en el Registro de Cooperativas o en el Registro Mercantil, respectivamente, entre el 16 de septiembre de 2009 al 15 de septiembre de 2010, ambos incluidos. También podrán acceder a las ayudas reguladas en la presente Orden, las Cooperativas y Sociedades Laborales que habiendo presentado la solicitud de inscripción en dichos registros con anterioridad al 15 de septiembre de 2010, resulten efectivamente inscritas antes de la emisión de la resolución sobre la solicitud presentada.

3.– Aurreko artikuluko 1.1.c) artikuluko laguntzetarako, aipatutako jarduerak egiten dituzten erakundeak, proposatutako helbururako egokitasuna egiaztatzen badute.

4.– 1.1.d) artikuluko jarduerarako, bideragarritasun-azterlana egiten deneko enpresak, enpresa-bideragarritasunari buruzko azterlanak legez egiteko gai diren kanpo kontsulta-enpresek egindakoa izanik. Kontsulta-enpresa horiek gizarte-ekonomiaren erakunde ordezkagarriek izan behar dute, edo erakunde ordezkagarri horiek gehiengoarekin partaidetutako kontsulta-enpresak, edota kooperatibaren edo lan-sozietatearen forma juridikoa duten beste kontsulta-enpresa batzuk, gizarte-ekonomiako erakunde ordezkagarriren bati elkartuta.

5.– 1.1.e) artikuluko jarduerarako, gizarte-ekonomiaren erakunde ordezkagarriek, eta kooperatibaren edo lan-sozietatearen forma juridikoa duten beste kontsulta-enpresa aditu batzuk, gizarte-ekonomiako erakunde ordezkagarriren bati elkartuta.

3. artikulua.– Entitate onuradunen baldintzak.

1.– Kapitulu honetako laguntzak lortu ahal izateko, erakunde onuradunek honako baldintza hauek bete dituztela ziurtatu behar dute:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan lantokiren bat eta egoitza soziala edukitzea.

b) Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda eta Gizarte Segurantzan izena emanda egotea 2010eko irailaren 30a baino lehen.

2.– Aurrekoak ez ezik, sustaturiko erakunde kooperatiboek edo lan-sozietateek honako hauek ere bete behar dituzte:

a) Kooperatibako edo lan-sozietateko bazkideen gizarte-ekonomiaren alorreko prestakuntza egiaztatzea, edo prestakuntza hori egiteko konpromisoa adieraztea.

b) Lankidetza-akordio bat izenpetzea, enpresaren laguntza edo aholkularitza gauzatzeko, hala badagokio.

c) Diru-laguntza eman aurretik legez eratutako gizarte-ekonomiako egitura asoziatiboren batean integratuta egotea. Agindu honetako 5.2.b) artikuluak aipatzen duen laguntzaren hiru urteko indarraldian atxiki behar da integratuta.

d) Bazkide langilearen sarrera mugagabea izango da eskabidea egiten duen unean.

e) Gizarte-ekonomiako enplegu berria sortzea.

f) Laguntza hau eskatutako dataren aurreko 10 urteetan gizarte-ekonomiako enpresa izateari ez uztea. Baldintza hori ofizioz konprobatuko du Gizarte

3.– Para las ayudas del artículo 1.1.c) las entidades que, acreditando su aptitud al fin propuesto, realicen dichas actividades.

4.– Para la actividad del artículo 1.1.d), las empresas en las que se realice el estudio de viabilidad por consultoras externas expertas que puedan realizar legalmente estudios de viabilidad empresarial. Estas consultoras deben ser las organizaciones representativas de la economía social, o empresas consultoras participadas mayoritariamente por estas organizaciones representativas, u otras consultoras con forma jurídica de cooperativa o sociedad laboral, asociadas a alguna organización representativa de la economía social.

5.– Para la actividad del artículo 1.1.e), las organizaciones representativas de la economía social, y consultoras externas expertas con forma jurídica de cooperativa o sociedad laboral, asociadas a alguna organización representativa de la economía social.

Artículo 3.– Requisitos de las entidades beneficiarias.

1.– Para acceder a las ayudas previstas en el presente Capítulo todas las entidades beneficiarias deberán acreditar el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Tener centro/s de trabajo y el domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas e inscrita en la Seguridad Social con anterioridad al 30 de septiembre de 2010.

2.– Además de los anteriores requisitos, las entidades promovidas cooperativas o sociedades laborales deberán:

a) Acreditar la formación en materia de Economía Social de las personas socias de la Cooperativa o de la Sociedad Laboral o el compromiso para la realización de dicha formación.

b) La suscripción de un acuerdo de colaboración para la realización del acompañamiento o asesoramiento empresarial, en su caso.

c) Integradas con anterioridad a la concesión de la subvención en alguna estructura asociativa de Economía Social legalmente constituida. Esta integración se debe mantener durante los tres años de vigencia de la ayuda a que se refiere el artículo 5.2.b) de esta Orden.

d) La incorporación de la persona socia trabajadora debe ser con carácter indefinido en el momento de la solicitud.

e) Generar nuevo empleo de economía social.

f) No haber dejado de ser empresa de economía social en los últimos 10 años anteriores a la fecha de solicitud de esta ayuda. Este requisito se comprobará

Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiben eta lan-sozietateen erregistroak kontsultatuz.

3.– 1.1.e) artikuluan aurreikusitako jarduera egiteko, langileen edo gutxienez ere langile-plantillaren heren baten lege-ordezkariek sinatutako idatzizko konpromiso bat aurkeztu beharko da, enpresa bideragarria baldin bada gizarte-ekonomiako erakunde bat eratzeko.

4. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Eusko Jaurlaritzak honako laguntza hauek emango ditu:

1.– 1.1.a) artikuluan jasotzen diren gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzeko sustapen-prozesuari dagozkion jardueren eta horren ondorengo jarraipenaren eta aholkularitzaren kasuan, sustatzaileari prozesu horrek sortzen dion gastuaren % 50, honako gehienezko kopuruekin, betiere erakunde onuradun bakoitzeko 125.000 euroko mugarekin: 6.000 euro eratutako lehen 10 enpresaren sustapenagatik; 5.000 euro hurrengo 10engatik eta 4.000 euro gainerakoengatik, aipatutako mugara arte.

2.– 1.1.b) artikuluan adierazitako Kooperatibak edo Lan Sozietateak eratzeari dagokionez, sustaturiko erakundeei honako diru-kopuru hauek emango zaizkie:

a) Enpresa berriak badira, laguntza hauek jasoko dituzte, 30.000 euroko mugarekin:

3.000 euro gizonezko bazkide langile bakoitzeko.

4.000 euro emakumezko bazkide langile bakoitzeko.

b) Lehendik zeuden enpresak eraldatu eta gizarte-ekonomiako enpresa bihurtu badira, laguntza hauek jasoko dituzte, 100.000 euroko mugarekin, honako eskala honen arabera:

3.000 euro lehenengo hamabost bazkide langileetako bakoitzeko.

2.000 euro hurrengo hamabost bazkide langileetako bakoitzeko (16. bazkide langiletik 30.era).

1.800 euro gainontzeko bazkide langileetako bakoitzeko.

3.– 1.1.b) artikuluan adierazitako Kooperatiba edo Lan Sozietateak eratzeari dagokionez, bazkide langileen % 50 baino gehiago ondorengo paragrafoetan zehazturiko kolektiboetako batean biltzen bada, sustaturiko erakunde onuradunarentzako muga igoko da, eta bakoitzak 45.000 jasoko ditu gehienez.

Ematen den diru-laguntza 6.000 euro-ra igoko da aipatutako langileak honako giza taldeetako batekoak baldin badira:

de oficio por la Dirección de Economía Social, Responsabilidad Social Empresarial y Trabajo Autónomo consultando los Registros de Cooperativas y de Sociedades Laborales de Euskadi.

3.– Para la realización de la actividad prevista en el artículo 1.1.e), se deberá presentar un compromiso escrito firmado por los representantes legales de las personas trabajadoras, o el conjunto de por lo menos un tercio de la plantilla de las personas trabajadoras, en el sentido de que, si la empresa es viable, se creará una entidad de economía social.

Artículo 4.– Cuantía de las subvenciones.

El Gobierno Vasco concederá, las siguientes ayudas:

1.– En el caso de las acciones de promoción para la constitución de una empresa de Economía Social y el posterior seguimiento y asesoramiento a que se refiere el artículo 1.1.a), con el límite de 125.000 euros por entidad beneficiaria, el 50% del coste que dicho proceso suponga para la persona promotora, con un límite de 6.000 euros por la promoción de cada una de las 10 primeras empresas constituidas; 5.000 euros por cada una de las 10 siguientes y 4.000 euros por cada una de el resto hasta el límite indicado.

2.– En el caso de constitución de Cooperativas o Sociedades Laborales a que se refiere el artículo 1.1.b), a las entidades promovidas se les concederán:

a) Para las empresas de nueva constitución, con un límite de 30.000 euros:

3.000 euros por cada hombre socio trabajador.

4.000 euros por cada mujer socia trabajadora.

b) Para el caso de transformación de empresas ya existentes en empresas de economía social, con un límite de 100.000 euros, conforme a la siguiente escala:

3.000 euros por cada una de las quince primeras personas socias trabajadoras.

2.000 euros por cada una de las quince siguientes personas socias trabajadoras, entre 16 y 30 personas socias trabajadoras.

1.800 euros por cada una de las restantes personas socias trabajadoras.

3.– En el caso de constitución de Cooperativas o Sociedades Laborales a que se refiere el artículo 1.1.b), cuando más del 50% de las personas socias trabajadoras pertenezca a alguno de los colectivos especificados en el párrafo siguiente, el límite de la entidad promovida beneficiaria se incrementará hasta 45.000 euros.

En el supuesto de que las citadas personas trabajadoras pertenezcan a algunos de los colectivos siguientes la cantidad a conceder se elevará a 6.000 euros:

a) Emakumeak, erakundeko bazkide langile edo lan-bazkideen gehiengoa badira.

b) Ezindua izatea, hau da, gutxitu fisiko, psikiko edo/eta sentsoriala izatea eta, gutxienez, % 33ko ezintasuna onartuta edukitzea.

c) Eusko Jaurlaritzak eta Justizia Ministerioak espetxeei buruz izenpetutako hitzarmena gogoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate kooperatibo edo lan-sozietateetan bazkide langile edo lan-bazkide gisa sartutako hirugarren graduko presoak eta baldintzapean aske utzitakoak izatea.

d) Guraso bakarreko aita edo ama izatea, hau da, ordaindutako jarduerarik egiten ez duten ondorengo bat edo batzuk haren mende izatea.

e) Etxeko biolentziaren biktima izan diren pertsonak. Pertsona bat egoera horretan dago haiek edo haien seme-alabak ezkontidearen edo antzeko harremanaren bidez lotura egonkorra izan duenaren bortizkeria fisiko edo psikikoaren biktimak izan direnean, beti ere gertakari horiek dagokion instantzia polizial edo judizialean salatu badira.

f) Gizarteratze- eta laneratze-prozesua laneratze-enpresa batean bukatu dutenak azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan araututakoak; horren arabera laneratze-enpresen kalifikazioa arautzen da, horietara sartzeko prozedura ezartzen da eta laneratze-enpresen erregistroa sortzen da, sozietate kooperatiborako sartze hori prozesua amaitu ondorengo lehen hamabi hilabeteen barruan gertatzen bada. Kontratazioa gizarteratze- eta laneratze-prozesua amaitutakoan egiten bada, ez da eskatuko langabe gisa erregistratuta egotea.

g) Terrorismo-ekintzen biktimak izan diren pertsonak, irailaren 24ko 214/2002 Dekretuko III. kapituluak horien laneratzea sustatzeko ezarritakoaren arabera –Dekretu horrek arautzen du Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Programa–, eta terrorismo-ekintzen biktimen seme-alabak eta ezkontideak, biktima hori hil bada edo ordaindutako jarduera egitea galarazten dion ezintasuna badu.

h) Toxikomano ohiak (alkoholiko eta drogazale ohiak), hau da, agindu honetan aurreikusten diren laguntzen ondorioetarako, lan-talde terapeutikoaren iritziz desintoxikazio- eta desohitze-faseak gaindituta etengabeko tratamenduan sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonak, lanaren bitartez gizarteratzeko programa batean sartzea interesgarritzat jotzen bada.

a) Mujeres, cuando éstas constituyan la mayoría de las personas socias trabajadoras o de trabajo de la entidad.

b) Tener la condición de persona discapacitada, entendiendo como tal a aquella persona que esté afectada por deficiencias físicas, psíquicas y/o sensoriales, y reconocida una minusvalía, como mínimo, del 33%.

c) En atención al Convenio Marco entre el Gobierno Vasco y el Ministerio de Justicia en materia penitenciaria, tener la condición de personas internas en tercer grado y de liberadas condicionales que se incorporen como personas socias trabajadoras o de trabajo en una Sociedad Cooperativa o Laboral.

d) El padre o la madre de una familia monoparental, entendiéndose por tal aquella persona que tenga a su cargo uno o varios descendientes que no desempeñen actividad retribuida.

e) Personas que hayan sido victimas de violencia doméstica, entendiéndose que se encuentran en esta situación cuando éstas o sus hijos o hijas hayan sido víctimas de violencia física o psíquica, ejercida por el cónyuge o por la persona que esté o haya estado ligado a ella de forma estable por análoga relación de afectividad, siempre que estos hechos hayan sido denunciados ante la correspondiente instancia policial o judicial.

f) Personas que hayan finalizado su proceso de inserción socio-laboral en una empresa de inserción, reguladas en el Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro, siempre que la contratación se celebre dentro de los doce meses posteriores a la finalización del mencionado proceso. En el supuesto de que la contratación se celebre inmediatamente después de finalizar el proceso de inserción socio-laboral, no se exigirá la inscripción como persona parada.

g) Personas que hayan sido victimas de actos de terrorismo, en los términos que a los efectos de fomentar su contratación establece el Capítulo III del Decreto 214/2002, de 24 de septiembre, por el que se regula el Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo, así como los hijos e hijas y el cónyuge de una victima de acto terrorista cuando ésta hubiere fallecido o resultara en situación de invalidez que le impidiese el desempeño de una actividad retribuida.

h) Personas extoxicómanas (exalcohólicas y exdrogadictas), considerando como tales a los efectos de las ayudas previstas en esta Orden, a aquéllas que, habiendo superado a juicio del equipo terapéutico correspondiente las fases de desintoxicación y deshabituación y llevando más de seis meses de tratamiento continuado, se considere de interés su adscripción a un programa de reinserción social a través del trabajo.

4.– Emandako diru-laguntzak ezin izango du ezein kasutan ere sozietateko bazkide langileek harpidetutako kapitalaren guztizkoa gainditu, artikulu honetan jasotako kolektibo behartsuen salbuespenarekin; kasu horretan, emandako diru-laguntza harpidetutako kapitalaren bikoitza izango da, aldez aurretik aipatutako 6.000 euroko mugarekin.

5.– 1.1.c) artikuluan aurreikusitako jardueretarako, garatutako jardueren kostuaren % 75eraino, 30.000 euroko mugarekin. Zenbateko hori ezartzeko zabalkunde-jarduera zenbatek jaso duten hartuko da irizpidetzat. Erakunde onuradunak gizarte-ekonomiako erakunde ordezkagarriekin eratuta daudenean, kooperatibak edo lan-sozietateak sustatzeko xedez, garatutako jardueren eta egitura-gastuen kostuaren % 75 arte, 30.000 euroko mugarekin.

6.– 1.1.d) artikuluan aurreikusitako jardueretarako, garatutako jardueren kostu garbiaren % 100eraino, 3.500 euro-rainoko mugarekin ekonomia- eta finantza-bideragarritasuneko azterlanarengatik.

7.– 1.1.e) artikuluan aurreikusitako jardueretarako, garatutako jardueraren kostu garbiaren % 100eraino, 6.500 euro-rainoko mugarekin.

5. artikulua.– Betebehar espezifikoak.

1.– Erakunde sustatzaileek enpresa-planaren bilakaera azaltzen duen memoria aurkeztu beharko dute, diru-laguntza eman zen egunetik urtebete igaro ondoren zenbatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Horretaz gain, diruz lagundutako jarduera amaitu eta hilabeteko epean kooperatibaren edo lan-sozietatearen enpresa-bilakaeraren eta lortutako emaitzen azalpena jasotzen duen memoria aurkeztu beharko dute.

2.– 1.1.b) artikuluak aipatzen dituen Kooperatiba eta lan-sozietateen eraketa eta zabalkuntzaren kasuan:

a) Eraketa-dataren hurrengo urtean, eraketaren unean sortutako lanpostuen maila atxiki beharko dute enpresek, horren arabera zehaztu baita diru-laguntzaren zenbatekoa, eta, hala ez bada, laguntzak osorik edo partzialki itzuli beharko dira atxikitako lanpostu kopuruaren arabera.

Aldi horren barruan bazkideen bajak edo sarrera berriak izan baldin badira, sarrerak, hasieran izan ziren sarreren baldintza soziolaboral berberekin egin beharko dira.

Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, erakunde onuradunak Gizarte Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzari bazkideen liburuaren kopia konpultsatua

4.– En ningún caso la subvención concedida podrá sobrepasar el total del capital suscrito por las personas socias trabajadoras de la sociedad, con excepción de los colectivos desfavorecidos recogidos en este artículo, en cuyo caso la subvención concedida será el doble del capital suscrito con el límite referido con anterioridad de 6.000 euros.

5.– En el supuesto de las actividades previstas en el artículo 1.1.c), hasta el 75% del costo de las actividades desarrolladas, con un límite de 30.000 euros. El criterio para la determinación de esta cuantía será el número de receptores de la actividad difusora. Cuando las entidades beneficiarias estén constituidas por entidades representativas de la economía social, con la finalidad de promover cooperativas o sociedades laborales, hasta el 75% del costo de las actividades desarrolladas y de los gastos de estructura, con un límite de 30.000 euros.

6.– En el supuesto de la realización de la actividad prevista en el artículo 1.1.d), el 100% del coste neto de la actividad, con un límite de 3.500 euros por el estudio de viabilidad económica y financiera.

7.– En el supuesto de la realización de la actividad prevista en el artículo 1.1.e), el 100% del coste neto de la actividad, con un límite de 6.500 euros.

Artículo 5.– Obligaciones específicas.

1.– Las entidades promotoras deberán presentar en el plazo de un mes, a contar desde el transcurso de un año de la fecha de concesión de la subvención, Memoria explicativa de la evolución del Plan de empresa.

Además, deberán presentar en el plazo de un mes desde la finalización de la actividad subvencionada Memoria explicativa de la evolución empresarial de la Cooperativa o Sociedad Laboral y resultados obtenidos.

2.– En el caso de la constitución de Cooperativas y Sociedades Laborales a que se refiere el artículo 1.1.b):

a) Durante el año posterior a la fecha de constitución, las empresas promovidas deberán mantener el nivel de puestos de trabajo creado en el momento de la constitución y en virtud del cual se ha determinado la cuantía de la subvención, procediendo, en caso contrario, el reintegro total o parcial de las ayudas percibidas en proporción al número de puestos de trabajo mantenidos.

En el supuesto que, durante dicho periodo, se produjeran bajas e incorporaciones de nuevas personas socias, estas últimas deberán producirse en las mismas condiciones socio-laborales que las incorporaciones iniciales.

A los efectos de comprobar el cumplimiento de la presente obligación, la Entidad beneficiaria deberá remitir a la Dirección de Economía Social, Responsabilidad Social Empresarial y Trabajo Autónomo, en

igorri beharko dio, hamabi hilabeteko aldia amaitu eta handik hilabeteko epean.

b) Sustaturiko Erakundea eratzen denez geroztik hiru urte betetzen direnean, gizarte-ekonomiako enpresa izaten eta egitura asoziatibo batean integratuta egoten jarraitu behar du, hiru urteko aldian eratzen denez geroztik zenbatzen hasita.

Kontuan hartuko da sozietateak betebehar hori bete duela sozietatearen galerengatiko azkentzea edo likidazioa justifikatzen duenean, diruz lagundutako kopuruari dagokionez behintzat.

Diru-laguntza eman duen Administrazioak ofizioz egiaztatuko du gizarte-ekonomiako enpresa gisa 3 urtez jarraitzeko betebehar hori bete duen edo ez, Kooperatiben Erregistroari eta Lan Sozietateen Erregistroari kontsulta eginez. Erakunde eskatzaileek sozietatearen likidazioa edo gizarte-ekonomiakoa ez den enpresan eraldatzea eskatu ez dutenean, betekizun hori bete dutela hartuko da aintzat.

Diru-laguntza eman duen Administrazioak, halaber, ofizioz egiaztatuko du egitura asoziatibo batean integratuta 3 urtez jarraitzeko betebeharra betetzen duen, erakunde asoziatiboei hori egiaztatzeko eskaera eginez.

c) Agindu honen ondorioz jasotako zenbatekoak erreserba berezi batera zuzendu beharko dituzte sustatutako erakundeek, eta erreserba hori banatu ezinekoa izango da harik eta sozietatea bera azkentzen edo eraldatzen den arte, diru-laguntza jaso dezan enpresan sortutako bat-bateko galerak ordaintzeko zenbateko hori bideratu ahal izango den arren.

III. KAPITULUA
ENPRESA BARRUAN ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK

6. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

a) Laguntza teknikoa eta beharrezko azterlan ekonomiko-finantzarioa, enpresa barruan enpresak sortzeko proiektu bat garatzeko, hau da, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkide langileek sustaturiko enpresa-ekimen berriak sortzeko, gizarte-ekonomiako erakunde bat eratu arte.

b) Jarraipena urtebeteko aldian gizarte-ekonomiako erakundea eratzen denetik, merkatuan izan behar duen ezarpen tekniko eta ekonomikoari begira.

7. artikulua.– Enpresa barruan enpresak sortzeko proiektu baten kalifikazioa.

1.– Proiektuaren titularrak 2. paragrafoan ezarritako eskakizunak biltzen dituen enpresa batean eman beharko ditu bere zerbitzuak, betiere enpresa horrek plazo de un mes a contar desde la finalización del periodo de doce meses, copia compulsada del libro de personas socias.

b) Cuando se cumplan los tres años desde la constitución de la Entidad promovida deberá mantenerse como empresa de economía social y mantener la integración en una estructura asociativa durante el mismo período de tres años desde su constitución.

Se entenderá que la sociedad ha cumplido esta obligación, cuando justifique la extinción o liquidación de la sociedad por pérdidas, al menos en la cantidad subvencionada.

La Administración concedente de la subvención comprobará de oficio el cumplimiento de esta obligación de mantenerse 3 años como empresa de economía social, mediante petición a los Registro de Cooperativas y Registro de Sociedades Laborales. Se entenderá que cumplen este requisito cuando las entidades beneficiarias no han solicitado la liquidación de la sociedad, o su transformación en una empresa que no sea de economía social.

La Administración concedente de la subvención también comprobará de oficio el cumplimiento de la obligación de continuar 3 años integrada en una estructura asociativa, mediante petición de certificación de dicho extremo a las entidades asociativas.

c) Las Entidades promovidas deberán destinar las cantidades recibidas en virtud de la presente Orden a una Reserva Especial que será irrepartible hasta la extinción o transformación de la sociedad, sin perjuicio de su posible destino para la compensación de las eventuales pérdidas que se produzcan en la empresa beneficiaria de las ayudas.

CAPÍTULO III
AYUDAS PARA EL INTRAEMPRENDIZAJE EN EMPRESAS

Artículo 6.– Actividades subvencionables.

a) El acompañamiento técnico y el estudio económico-financiero necesario para el desarrollo de un proyecto de intraemprendizaje, esto es, la creación de nuevas iniciativas empresariales promovidas por personas socias trabajadoras de empresas de economía social, hasta la constitución de una entidad de Economía Social.

b) El seguimiento durante un periodo de 1 año desde la constitución de la entidad de Economía Social, para su implantación técnica y económica en el mercado.

Artículo 7.– Calificación de un proyecto de intraemprendizaje.

1.– La persona titular del proyecto deberá ser un trabajador o trabajadora que preste sus servicios en una empresa que reúna los requisitos establecidos en

tan aldez aurretik enpresa barruan enpresak sortzeko unitate estrategiko bat eratu bada.

2.– Proiektuaren sustatzaile den langileak bere zerbitzuak ematen dituen enpresak bete beharreko eskakizunak:

– Egoitza EAEn.

– Eratu zenetik 3 urteko aldia igaro izana.

– 100 langile baino gehiago edukitzea. Bigarren mailako kooperatiben kasuan, betekizun hori betetzat emango da bigarren mailako kooperatiba osatzen duten langileen batukariarekin.

– Erakundean bertan enpresa barruan enpresak sortzeko unitate bat sortu izana egiaztatzea, helburutzat gizarte-ekonomiako erakundeak eratzea izango duena.

– Proiektuaren garapen teknikoak eta azterlan ekonomiko-finantzarioak eragiten dituen gastuan gutxienez % 50 bere gain hartzea.

– Enpresaren konpromisoa proiektua abiarazten bultzatzeko.

– Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda eta Gizarte Segurantzan erregistratuta egotea.

8. artikulua.– Enpresa barruan enpresak sortzeko unitate estrategikoa.

Aurreko artikuluan aipatu diren enpresa barruan enpresak sortzeko unitate estrategikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Enpresaren kudeaketa- eta administrazio-organoetako langileek osatu beharko dute gutxienez.

b) Enpresako langileek aurkeztutako enpresa-proiektuko ideiak balioetsi eta hautatzea.

c) Proiektua garatzeko beharrezkoa den guztizko kostua zehaztea gizarte-ekonomiako erakunde gisa eratzen den arte.

d) Sustatzaileek jarduera berrirako duten dedikazio erabatekoa edo partziala zehaztea.

e) Proiektuaren titularrek gizarte-ekonomiako prestakuntza-premia aurreikustea, eta, beharrezkoa izanez gero, prestakuntza hori eskaintzea.

f) Proiektuaren garapen teknikoa eta azterlan ekonomiko-finantzarioa aurrera eramango duen erakundea zehaztea.

g) Bere jardueraren ondorioz sortzen den edo diren erakundeak edo erakundeek gizarte-ekonomiako forma juridikoa edukiko duela edo dutela adierazten duen konpromiso-idazki bat aurkeztea.

el párrafo 2 de este artículo y en cuyo seno se haya constituido previamente la unidad estratégica de intraemprendizaje.

2.– Requisitos que debe cumplir la empresa en la que la persona trabajadora promotora del proyecto preste sus servicios:

– Domicilio en la CAPV.

– Que hayan transcurrido más de 3 años desde el momento de su constitución.

– Que tenga un número de personas trabajadoras superior a 100. En el supuesto de cooperativas de segundo grado, este requisito se entenderá cumplido por el sumatorio de las personas trabajadoras de las cooperativas que integran la cooperativa de segundo grado.

– Que acredite la creación dentro de la propia entidad de una unidad de intraemprendizaje cuyo objeto sea la constitución de entidades de Economía Social.

– Hacerse cargo de al menos el 50% de los gastos que suponga el desarrollo técnico y el estudio económico-financiero del proyecto.

– El compromiso de la empresa en el apoyo del lanzamiento del proyecto.

– Alta en el Impuesto de Actividades Económicas e inscrita en la Seguridad Social.

Artículo 8.– Unidad estratégica de intraemprendizaje.

Las unidades estratégicas de intraemprendizaje mencionadas en el artículo anterior deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Estar constituidas al menos por personal de los órganos de Gestión y Administración de la empresa.

b) Proceder a la valoración y selección de las ideas de proyecto empresarial presentadas por las personas trabajadoras de la misma.

c) Determinar el coste total necesario para el desarrollo del proyecto hasta su constitución en entidad de Economía Social.

d) Determinar la dedicación total o parcial del promotor o de los promotores a la nueva actividad.

e) Estimar la necesidad de formación en Economía Social de las personas titulares del proyecto y en caso necesario proporcionar esta formación.

f) Determinar la entidad que va a llevar el desarrollo técnico y el estudio económico-financiero del proyecto.

g) Presentar un escrito de compromiso de que la entidad o entidades resultantes que se constituyan producto de su actividad, tengan forma jurídica de economía social.

9. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Honako hauek izango dira onuradunak: EAEn egoitza izaki eta beren helburuen artean enpresa-sustapena daukatela, laguntza teknikoa eta azterlan ekonomiko-finantzarioa egiteko 3 urteko esperientzia egiaztatuta dutenak 7. artikuluan aipatzen proiektua garatzeko, ezartzeko eta haren jarraipena egiteko, jardun-plan batean islatuko dena.

10. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak.

Enpresa barruan enpresak sortzeko unitateak aurreikusitako eta Gizarte Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzak onartutako 6. artikuluko diruz laguntzeko jardueren kostuaren % 50 emango du Eusko Jaurlaritzak. Proiektu bakoitzak 60.000 euroko muga izango du.

IV. KAPITULUA
LURRALDE SUSTAPEN PLANIFIKATUA

11. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

1.– Agindu honen 13. artikuluko eskakizunei jarraiki, Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikaturako Jardun Plan bat landu, garatu eta gauzatzea, lanean parte hartzean, aberastasuna sortu eta orekaz banatzean eta enplegu-sorkuntzan oinarrituta, eskualde-oinarriko lurralde-eremu jakin batean finkaturiko hezkuntza-erakundeek eta gizarte-ekonomiako enpresek parte hartzen duten erakundeen eskutik.

2.– Agindu honen ondorioetarako, gizarte-ekonomiako enpresen eskualde-oinarriko lurralde-eremua mugatze aldera, Eustatek ezarritako eskualde naturalen arabera lurralde-banaketa erabiliko da, baita eskualde horien eragin-eremua ere.

12. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Nortasun juridiko propioa izaki eta honako eskakizun hauek betetzen dituzten erakundeak izan ahalko dira diru-laguntza honen onuradun:

a) Beren helburuen artean enpresa-sustapena biltzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea.

c) Jardun-plana hurrengo artikuluan ezarritako edukiarekin eta baldintzekin aurkeztea, urtero Planaren helburuak banakatuz.

13. artikulua.– Jardun-plana eta enpresa-proiektuak.

1.– Laguntzak baliatzeko, erakunde eskatzaileek jardun-plana aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera, bertan honako hauek jasota:

Artículo 9.– Entidades beneficiarias.

Serán beneficiarias las personas jurídicas que, teniendo domicilio en la CAPV e incluyendo entre sus fines la promoción empresarial, cuenten con acreditada experiencia de 3 años en la realización del acompañamiento técnico y el estudio económico-financiero para el desarrollo, implantación y seguimiento del proyecto al que se hace referencia en el artículo 7, y que se reflejará en un Plan de Actuación.

Artículo 10.– Cuantía de la subvención.

El Gobierno Vasco concederá el 50% del coste de las actividades subvencionables del artículo 6 que haya sido estimado por la unidad de intraemprendizaje y aprobado por la Dirección de Economía Social, Responsabilidad Social Empresarial y Trabajo Autónomo, con un límite de 60.000 euros por proyecto.

CAPÍTULO IV
PROMOCIÓN TERRITORIAL PLANIFICADA

Artículo 11.– Actividades subvencionables.

1.– La elaboración, desarrollo y ejecución de un Plan de Actuación con los requisitos del artículo 13 de la presente Orden para la promoción territorial planificada de empresas de Economía Social, y la difusión de la cultura emprendedora, basadas en la participación del trabajo, la creación y distribución equitativa de la riqueza así como la generación de empleo, por entidades que cuenten con la participación de entidades educativas y empresas de economía social entroncadas en un ámbito territorial determinado de base comarcal.

2.– A los efectos de la presente Orden, para la delimitación del ámbito territorial de base comarcal de las empresas de Economía Social se utilizará la división territorial en comarcas naturales establecida por el Eustat, así como su área de influencia.

Artículo 12.– Entidades beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de esta subvención entidades con personalidad jurídica propia que cumplan los siguientes requisitos:

a) Incluir entre sus fines la promoción empresarial.

b) Estar radicadas en la Comunidad Autónoma Vasca.

c) Presentar un Plan de Actuación con el contenido y en los términos establecidos en el artículo siguiente, desglosando anualmente los objetivos del Plan.

Artículo 13.– Plan de Actuación y Proyectos Empresariales.

1.– Para poder acceder a las ayudas, las Entidades interesadas deberán presentar, junto con la solicitud, un Plan de Actuación en el que se haga constar:

a) Urte naturaleko aldirako deskribapen xehatua honako puntu hauei dagokienez:

1) Helburu kuantitatiboak eta kualitatiboak, plangintzaren arabera eratuko diren gizarte-ekonomiako enpresei buruzkoak.

2) Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eredua.

3) Prozesu ekintzailearen faseak.

4) Sortuko diren gizarte-ekonomiako enpresen sustapen-prozesuari lotutako baliabide materialen eta giza baliabideen beharrezko oinarrizko egitura.

5) Gizarte-ekonomiako enpresak sustatzeko planifikatutakoa egiteko beharrezko gastuak, finantziazioa xehatuz.

b) Lurraldean hezkuntza-erakundeak egotea, etorkizuneko proiektuekin lotutako prestakuntza teknikoa eman ahalko dietenak enpresa-jardueran arituko diren pertsonei.

c) Gizarte-ekonomiako enpresa edo erakundeek jardun-planean parte hartzea, etorkizuneko proiektuei estaldura eman badiezaiekete. Laguntzaren nondik norakoa eta parte-hartze horren finantza-arloko edo beste edozein arlotako inplikazio-maila zehaztu behar da jardun-planean proiektu bakoitzerako.

d) Erakunde eskatzailearen konpromiso idatzia, enpresak sortzeko jarduera garatzeko borondatea duela adieraziz, batez ere gizarte-ekonomiako enpresak sustatuz.

2.– Jardun-planen ondoriozko enpresa-proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Proiektu horiek lurralde-esparru jakin batean kokatuta egotea, Agindu honetako 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Enpresa-jarduera egingo dutenek horretarako prestakuntza egokia izatea, 13.1.b) artikuluan aipaturiko hezkuntza-erakundeek kasu bakoitzerako balioetsitakoaren arabera.

3.– Jardun-plana, artikulu honetako lehen paragrafoan finkatutako edukiarekin batera, Gizarte Ekonomiaren, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren eta Lan Autonomoaren Zuzendaritzak onartu beharko du, eta bertan agindu honetako 11. artikuluan aurreikusitako diruz laguntzekoak diren jardueren kostua zehaztuko da.

14. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak honako hauek finantzatuko ditu diru-laguntza bidez:

1.– Kultura ekintzailea sustatu eta zabaltzeko gastu orokorren % 75, Gizarte Ekonomian ekiteko erakunde onuradunaren jardunaren lurraldean, gehienez 30.000 euroko zenbatekoarekin, eta honako baldintza hauen arabera:

a) Descripción detallada para un periodo del año natural de los siguientes extremos:

